

ARDATZAK

BAKEA ETA GATAZKA. Bakeari buruzko eztabaida eta gatazka politikoari buruzkoa ezin direla bereizi eta bakea ETA desagertzearekin ezin dela parekatu nabarmendu zuen Batasunak. ETArek sorrera eta iraupena gatazka politikoaren ondorio gisa ulertu behar dela esan zuen.

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA. Eskubide horren bortxaketa beste giza-eskubideen urraketa iturritzat jo, eta gatazka gainditzeko giltzarritzat jarri zuen.

KRITIKA. Ibarretxek proposatutako neurriak soilik ETArek kontrakoak eta bide polizial hutsa direla iritzi zion Otegi. Demokratikoak ez diren estatuen politikari zilegitasuna ematea egotzi zion Otegi Ibarretxeri.

Bost legebiltzarkide berrik karguak hartu dituzte bilkuran

Bost legebiltzarkide berrik karguak hartu zituzten atzoko bilkuran, aulkiak utzi zituzten beste bost legebiltzarkideren ordez. Ramon Rabanera PPko buruzagiaren ordez, Roberto Blanco Maineri alkateak hartu zuen kargua; Sabin Intxaurrearen ordez (EA) Karmele Antxustegi ariko da legebiltzarkide lanetan; eta EAJk hiru aldaketa egin ditu: Gabriel Inclan, Josu Jon Imaz eta Belen Greavesen lekuak Juan Antonio Arieta-Araunabeña, Jokin Bildarratz eta Mikel Arraibik hartu dituzte.

Ibarretxeren hitzaldia «etsigarria» dela esan du Madrilgo Gobernuak

Espainiako Gobernuak bozeramaile Pio Cabanillasek Juan Jose Ibarretxeren hitzaldiari buruz adierazi zuenez, indarkeriaren aurkako borrokaren batera gai politikoak berriz mahaigainaratzeari «etsigarria» da, «terrorismoaren aurkako borrokan nazioartekoan batasuna dagoen une honetan». Haren ustez, normalizatzea «ez da eraikuntza teoriko nahasiak aurkeztea, pertsonen eskubideak bermatzea baizik».

Otegi Senideak-Gureak erakundearen gutun bat irakurri zuen hitzaldian

Senideak-Gureak erakundeak legebiltzarkideei zuzendutako gutuna irakurri zuen hitzaldiaren hasieran Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak, preso senideei ahotza emanez. Sakabanaketaren atzean giza-eskubideak sakotan urratzen direla adierazi zuten Senideek Otegiaren ahotik, eta legebiltzarkideei sufrikario hori amaitzeko neurriak eskatu zizkieten.

Elkarri-ko eta BAKeko kideak eta Ardanza ikusleen artean

Elkarri-ko eta Bakearen Aldeko Koordinakundeko kideak elkarren ondoan eserita izan ziren Eusko Legebiltzarrean, gonbidatuen tokian. Elkarri-ko Jonan Fernandezek eta Bittor Aierdik eta BAKeko Txema Urkijok goizez eta arratsaldean jarraitu zuen eztabaida. Ikusle ezagunen artean, Jose Antonio Ardanza, Roman Sudupe, Txaro Arteaga, Andoni Ortuzar eta Enrique Villar aipa daitezke.



MIREN SAEZ

Arnaldo Otegi autodeterminazio eskubidea jarri zuen gatazka politikoa gainditzeko gako gisa, eta Ibarretxeri polizi neurriak besterik proposatu ez izana leporatu zion.

BATASUNA. Ibarretxeri polizi neurriak baino ez aurkeztea egotzi dio

Gatazka konpontzeko gakoa autodeterminazio eskubidea dela dio Otegi

Bakeari buruzko eztabaida «nazionala» izatearen alde agertu zen

Pello Urzelai | GASTEIZ

Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak autodeterminazio eskubidea jarri zuen eztabaidaren erdigunean. Bakearen arazoa ETA desagertzera ezin dela mugatu nabarmendu, eta 1998an EAJ, EA eta EB-IUekin batera Lizarra-Garaziko akordioan eginiko diagnosa ekarri zuen gogora. «Euskal Herriak

badu gatazka bat estatu espainiarrarekin eta estatu frantziarrarekin; izaera politikoa duen arazo historiko bat da. Hauxe da gure diagnosa», gogoratu zuen Otegi. Diagnosi horren arabera, gatazka gainditzeko giltzarri edo gakoa estatu espainiarrak eta estatu frantziarrak «euskal herritarren eskubideen bortxaketa dinamikari» uztean datza. Hori Euskal Herriari autodeter-

minazio eskubidea onartzea dela argitu zuen Otegi. «Hori da gatazkaren irtenbidea, giza-eskubideen alorrean eragiten duten beste faktoreek autodeterminazio eskubidearen bortxaketan dutelako iturria», azaldu zuen Batasuneko bozeramaileak. Autodeterminazio eskubidea NBERen Eskubide Zibil eta Politikoen Hitzarmenaren lehen puntua dela, eta ez Batasu-

ARDATZAK

ELKARRIZKETA BAKAR BAT. PSE-EEko eledunak elkarrizketa mota bakar bat agindu zion Juan Jose Ibarretxe lehendakariari, «ETA borrokatu nahiz garaitzekoa».

JOKO ARAUAK. Nicolas Redondok aipu ugari bota zituen joko arauen gainean, Konstituzioa nahiz Estatutua «auziak konpontzeko tresna bakarrak» direla azalduz.

NEW YORK. Estatu Batuetako atentatuek bide eman zioten hitzaldia bero-bero abiatzeko. Hala, ETA «izua multinazionalean» dagoela esan zuen, «durbanteko terroristak eta terrorista txapeldunak» aipatuta.

gun arazo nagusia da, hain zuzen, joko arauen definizioa, ez besterik».

Izan ere, joko arauak buruzko erreferentziak etengabeak izan zituen Redondok, zeinak gai horretan Jaurilaritza sostengatzen duten taldeen jarreraz «erreze-loak» dituela aitortu. «Ez bilatu trikimailurik esparru konstituzionalari ihes egiteko», bota zion Ibarretxeri. Konstituzioa eta Estatutua «gure eskubideak bermatzen dituztenak» direla berretsi zuen.

«Durbanteko terroristak eta terrorista txapeldunak»

PSE-EEko bozeramaileak hitzaldi-hasiera beroa egin zuen, zuzen sartu baitzen Estatu Ba-

